

ARARTEKOA BERE EGINKIZUNA SENDOTZEN: HERRITARRAK DEFENDATZEA

ARRETA ZUZENENKO BULEGO BERRIA DONOSTIAN

1996an Bilbon eta Donostian arreta zuzeneko bulegoak zabaldu zirenetik (lehendik bazegoen Gasteizen) Ararteko erakundeak baditu bulegoak hiru lurralde historikoetako hiriburuetan. Gainera, 2001eko irailean bulego berria ireki zen Donostiako Askatasuna hiribideko 26. zenbakian, Prim kalekoa utzita. Egoitza berriari esker arreta hobe eman ahal izango zaie administrazioarekin arazoak dituzten herritarrei, izan ere, instalazioak egokiagoak dira eta errazago joateko lekuan daude, eta gainera, egun batzuetan eremu desberdinetako aholkulariak arituko baitira bertan. Arreta zuzeneko bulego hauen funtzionamenduan hartutako eskarmentuak erakutsi du bulego horietan bisitariak ez ezik telefono-

dei ugari ere jasotzen direla gauzak galdetzeko; galdera horiei erantzunez, erakundeak langileek informazio baliagarria ematen diete herritarrei administrazioekiko harremanetan eskuko dituzten eskubideez.

Bestalde, webgunearen (www.ararteko.net) erabilpena sendotu da. Bertan erakundearen, beraren jardueren, txostenen eta helbidearen gaineko informazio ugari jarri dugu herritarren esku. halaber, nahi duten pertsonak kekak aurkezteko ereduia ere badute: bertan eskatzen zaizkien datuak adierazi eta bidali besterik ez dute.



Mertxe Agúndez, Juan Mari Atutxa Legebiltzarreko Lehendakariarekin



Donostiako bulego berria (Diario Vascoren argazkia)


ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAK KOPURUTAN

- 2001. urtean 1.513 keza jaso dira.
- Erantzunaren eraginkortasuna oso handia izan da. Kexetatik % 90ean irregulartasunen bat gertatu dela ebatzi da eta ukitutako administrazioak bere jarduera zuzendu du.
- Gasteiz, Bilbo eta Donostiako arreta zuzeneko bulegoetan 3.003 galderari erantzun zitzaizen telefonoz eta 2.203 herritar hartu ziren.
- Udalak dira, oraindik ere, erreklamazioak gehien jomuga (% 49,21). % 33,13 Eusko Jaurlaritzaren aurka dira eta % 14,74 foru aldundien aurka.


- Erreklamazioak gehien izan diren jarduerak hauek dira: Funtzio Publikoa (% 30,20), Ogasuna (% 12,05) eta Herri Lan eta Zerbitzuak (% 9,41).
- Erreklamazioa aurkeztu duten pertsonetarik ia % 84k ontzat jo dute gure esku-hartzea. Gehienek Ararteko erakundera jotzea gomendatuko liekete, beti edo batzuetan, herri administrazioen batekin arazoren bat duten guztiei.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA

KONPONDU GABEKO IRREGULARTASUNA (GOMENDIOA EZ DA ONARTU)



ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUEZ EGINDUTEN BALORAZIOA



2001

DATU OROKORRAK


Ararteko erakundearen ustez, irregulartasunen bat izan da 2001. urtean aztertu eta tramitatzen amaitu diren kexetatik % 29,16tan. Gure ustez irregulartasunen bat izan den erreklamazioetatik % 90etan ukitutako administrazioak kexa eragin zuen jarduera zuzendu du, guk gomendiorik eman gabe. Gainerakoetan, kexa eragin zuen arazoa gomendioa onartuta eta hari jaramon eginez konpondu zen.

2001. urtean 1.513 kexa aurkeztu ziren, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago. Haietatik % 11,57 taldeek aurkeztu dituzte, hala nola auzotar elkarteek, sindikatuek eta talde ekologistek. Badira bi erreklamazio ehun pertsona baino gehiagoren babesa izan dutenak.

Kexak arloaren arabera aztertuz gero, ohartu gara Funtzio Publikoaren arloan igoera nabarmena izan dela (366 erreklamazio, 2000. urtean baino 245 gehiago), bi taldek jarritako kexen ondorioz. Ogasun Sailaren aurka 146 dira erreklamazio izan dira eta 114 Herri Lan eta Zerbitzuen aurka.

Kexen xede diren administrazioei begiratu gero, datuek erakusten dute udalak direla oraindik ere erreklamaziorik gehien sortzen dutenak, bideratutako guztien % 41,21, hain zuzen. % 33,13 Eusko Jaurlaritzaren aurka jarri dira, eta % 14,74 eta foru aldundien kudeaketaren aurka.

ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2001)




¹ 545 kexek kexa berdin-berdin multzo bat osatzen dute.
² 1.143 kexek kexa berdin-berdin 2 multzo osatzen dituzte.
³ 62 kexek kexa berdin-berdin multzo bat osatzen dute.
⁴ 264 kexek kexa berdin-berdin 2 multzo osatzen dituzte.

Kexarik gehien jaso duten udalak honako hauek izan dira: Bilbo (64), Gasteiz (56), Donostia (42), Barakaldo (20), Getxo (16), Portugalete (11) eta Santurtzi (10).

2001. urtean 2.203 herritar hartu dira EAeko hiru hiriburuetatiko arreta zuzeneko bulegoetan, eta 3.003 galderari erantzun zaie telefonoz.


Erreklamatzailerik gehienek (% 83,91) ondo iritzi diote Arartekoaren esku-hartzeari, eta herri administrazioen batekin arazoak dituztenei Ararteko erakundera jotzea gomendatuko liekete. Arazoa konpondu ez zaien pertsona gehienek ere gure esku-hartzea ona izan dela uste dute.

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA



1 Funtzio Publikoa	8 Herrizaingoa
2 Ogasuna	9 Hezkuntza
3 Herri Lanak eta Zerbitzuak	10 Justizia
4 Hirigintza eta Etxebizitza	11 Nekazaritza, Industria, Merkatutza eta Turismoa
5 Osasuna	12 Kultura eta Elbikasuna
6 Gizarte Ongizatea	13 Lana eta Gizarte Segurantzza
7 Ingurumena	


ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




Herritarrek jarritako kexez gain, Ararteko erakundeak hainbat gai ikertu ditu bere kabuz, jarduera irregularen bat egon zitekeela uste izanik, edo laguntzeko edo zerbitzu berriak emateko aukera zegoelakoan.

ERREKLAMATZAILAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMATZAILEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



Gizartea sentsibilizatu egin behar da eta baztertuen aldeko elkartasunezko gizarte-ekimenei lagundu behar zaie



Hontza zentroa (El Correoren argazkia)

ETXERIK GABEKO DROGAZALEENTZAKO HARRERA-ZENTROAK BEHARREZKOAK DIRA

Zamakola 9ko etxe-jabeen erkidegoaren kexa jaso genuen, drogazaleentzako Hontza laguntza-zerbitzuari buruzkoa. Erakunde honetako langileek argibideak eskatu zituzten eta bilera batzuk izan zituzten udaleko arduradunekin. Caritas-eko arduradunen informazio osagarria ere bildu zuten, instalazioak ikustera joan ziren eta Hontza zentroaren kokalekua, lan-proiektua eta zerbitzuak aztertu zituzten. Hori guztia uztailan egin zuten, zerbitzua zabalik egon zen bitartean.

Zentroa irekitzeko lizentziari buruzko administrazio-espedita aztertu zuenean, Arartekoak iritzi zion komeni zela auzokoak entzuteko tramitea betetzea, hots, auzokoei alegazio formalak aurkezteko aukera ematea. Bildutako informazioa ikusirik, Arartekoak ondorio hau atera zuen: Bilboko udalak zerbitzua irekitzeko baimena eman behar zuen, behar zen eran eta ahalik arinen. Idazkian, gainera, Hontza zentroko jardueri berriz ekiteko behar ziren urratsak egin zitzaizkion zitzaien udalari, funtzionamendu onerako berme guztiekin egin ere, erabiltzaileentzat nahiz auzokoentzat.

Ararteko erakundeak, Eusko Legebiltzarrak berak eta beste hainbat erakundek bezala, sarri adierazi izan du drogazaleei abegi egiteko zerbitzuen eta gizarte eta osasun zentroen beharra dagoela, baita horrelako zentroen sorrera sustatu ere. Herri erakundeetako arduradunek halako proiektuak bultzatzea eskatu izan du, gainera. Gerta liteke, ordea, proiektuok auzokoen kezka sorraraztea, hasieran batez ere. Horregatik, herri erakundeek ahalegina egin behar dute gizartea sentsibilizatzeko, elkartasunezko gizarte-ekimenei laguntzeko, baztertuen alde diharduten gizarte-eragileekin lankidetzan aritzeko eta laguntza-zerbitzuen jardun egokia bermatzeko.

Udalak azaroan baimena emanda, zerbitzuak abenduaren 10ean ireki zituen berriz ere atak, zailtasunak zailtasun.

UDALEK EZIN DIETE ISUNIK JARRI HONDARTZETAN BILUZIK IBILTZEN DIRENEI

Euskal Naturista Elkarteak (ENEk) Arartekoari salaketa aurkeztu zion, Getxoko udalak, dekretu bidez, udalerriko hondartza eta landetan biluzik ibiltzen direnei isuna ezarri ahal izatea onartu zuelako, nudismoa eragozteko hertsapen-neurri legez. ENEK arrazoi hauek azaldu zituen: dekretuak Azkorriko hondartzaren ohiko erabilera murrizten duela, azken hiru hamarkadetan nudismoa arazorik gabe praktikatu izan dela Getxoko hondartzetan, eta ez dagoela inongo araurik hondartzetan eta horrelako lekuetan biluzik ibiltzea galarazten duenik.

Arartekoak udalari argibideak eskatu zizkion, alegia, dekretuaren legezko oinarriak zeintzuk ziren, zer-nolako neurriak hartuko zituen dekretua betearazteko, eta zein legek ematen zion baimena horrelako isunak jartzeko. Eskaerari erantzunez, Getxoko udalak ohar-sail bat, udalarentzat egindako hiru txosten juridiko, hirurak ere ezezkoak, eta Idazkaritza Nagusiaren txosten bat bidali zizkigun. Ez zigun esan, oster, jendea hondartzetan biluzik ibiltzea eragozteko ahalmena zein legetatik jaso zuen.

Informazio guztiak aztertuta, Ararteko erakundeak ondorioztat atera zuen udalak ez duela legezko gaitasunik norbanakoen jardueretan esku hartzeko, ezta ere udalerriko hondartza eta landetan berak agindutako janzkera nahitaez erabili behar dutela esateko. Hain zuzen ere, udalek hondartzetan osasun publikoa eta artapena arautzeko eskumena dute, besterik ez. Gainera, arazoari legearen ikuspegitik heldzen badiogu, antolamendu juridikoak ez du inolako zigorrak aurreikusten gune publikoetan nudismoa praktikatzearatik, eta ez dago lege bat bera ere arlo horretan hertsapen-isunak ezartzeko bidea eman eta isunen ezaugarriak eta zenbatekoa zehazten dituenik.

Hortaz, Getxoko udalari dekretua deuseztatzea gomendatu zitzaion, antolamendu juridikoaren kontrakoa izatearatik. Momentuz Udalak ez du onartu gomendioa.



(El Correoren argazkia)

Gizartean sortutako asalduraren aurrean, erabakia zuzendu zuen

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA BATEAN UDALAK BANAKO ESKATZAILEAK BAZTERTU NAHI IZAN ZITUEN

Arartekoak komunikabideen bitartez jakin zuen Gasteizko udalak Ibaiondoko promozioiko babes ofizialeko 350 etxebizitzak, erreserbetakoak izan ezik, kide biko edo gehiagoko elkarbizitza-unitateei soilik adjudikatuko zizkiela. Udalak banako eskatzaileak -oso ugariak- baztertuko zituela iragartzeak asaldura handia sortu zuen herritarren artean, eta horren aurrean Arartekoak ofizioz espedientea hastea erabaki zuen, udalaren erabakia berdintasun printzipioaren kontrakoa zen zehazteko.

Geroago, udalak irizpidea aldatu eta

etxebizitza batzuk gorde zituen banakako eskatzaileentzat. Hala ere, Arartekoak laguntza eskatu zion udalari, deialdiaren oinarrien jarraipena egiteko. Udalak, eskaerari erantzunez, Hiria Berriztatze Agentziaren Administrazio Kontseiluak etxebizitzak adjudikatzeko prozesurako onetsitako oinarriak bidali zizkigun.

Oinarriko aztertutik, erabaki genuen erreserben sistema egokia zela etxebizitza behar dutenen eskariaren egoerarako.



(El Correoren argazkia)

HEZKUNTZAREN ARLOKO AGINTARIEK GIDATU BEHAR DUTE HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA EZARRI ETA EGOKITZEKO PROZESUA



(El Correoren argazkia)

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundearteko Planak hezkuntzaren arloko hainbat talderen gaitzespena eragin du. Hala, 0-3 Urteko Haurren Hezkuntzaren aldeko Mahaia osatzen duten taldeek esku hartzeko eskatu zioten Arartekoari. Plana berrikustea nahi zuten, 0 eta 2 urte bitarteko umeen eskolatzea laguntza-zerbitzutat aurkezten zelako agiri horretan, eta ez benetako hezkuntza-zerbitzutat.

Mahaiaren ordezkariekin izandako bileran azpimarratu genuen bezala, erakunde honek hainbat aldiz azaldu du bere iritzia hezkuntzaren lehenbiziko etapa honen gainean, eta beti adierazi izan du ezen, dudarik gabe, hezkuntzako agintariei dagokiela ziklo hori ezarri eta egokitzeko prozesuaren gidaritza. Zenbait informazioren arabera, badirudi, zorionez, erakundearteko batzordea sortzeko asmatan dabilzala Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta EUDEL. Batzorde hori arduratuko da hain beharrezkoa dugun hezkuntza-zerbitzu honen arauketa aztertzeaz.

Heziketa-beharrizan bereziak dituzten umei erreparatuta, halaber, garbi sumatzen da hezkuntzaren lehenengo etapa hori arautu beharra. Ildo horretan, Ararteko erakundeak hauxe proposatu du: ume txikien eskolatzea dela-eta, erabat lehenetsi behar litzateke premia bereziak dituzten ikasleen aldeko irizpidea, egokitasunean oinarrituta erabiltzen ari diren beste irizpide batzuen aldean.

IKASTETXEETAKO KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO SEGURTASUN NEURRIAK ARAUTU BEHARRA DAGO

Azken urteotan gure Autonomia Erkidegoko haur batzuek istripuak izan dituzte ikastetxe eta kiroldegietan, kirol-ekipamenduak lurrean edo hormetan behar bezala finkaturik ez egotearen ondorioz. Horrelako istripuak eskola-orduetan gertatu ohi dira, heziketa fisikoko klaseetan hain zuzen ere, edo umeak kiroldegian jolasean ari diren bitartean. Kirol ekipamenduek, oro har, betetzen dituzte Elkarteko eta Espainiako legerian ezarritako homologazio-arauak, baina bistan da horrez gainera beste neurri batzuen beharra dagoela.

Oraindik ere EAEn zehaztu gabe dago zer nolako neurriak hartu behar diren kirol ekipamenduak segurtasunez erabiltzeko. Gaur egun, beraz, EAEko toki erakundeen esku dago segurtasuna, eta egoera hori arazo ugariaren iturri da, behin baino sarriago egiaztatuta ahal izan dugunez.

Ararteko erakundearen iritziz, harantzago joan behar da eta arau bidez zehaztu behar dira kirol ekipamenduak segurtasunez erabiltzeko neurri nagusiak. Haurren segurtasuna dago jokoan, haurrak jolas eta kiroletan arriskurik gabe ibili ahal izatea, alegia.

Beraz, gure iritziz, EAEko toki erakundeei arlo honetan jarduteko gidalerroak eskaini behar zaizkie, hartu beharreko segurtasun-neurriak zehatz azalduz, ekipamenduak nola artatu behar diren adieraziz eta babes-neurrien antolamendua zehaztuz.

BAKARRIK DAUDEN ATZERRITAR ADIN TXIKIKOAK GERO ETA GEHIAGO DIRA

Azken urte bietan Ararteko erakundeak arreta berezia hartzen die senideen laguntasunik gabe eta dokumentaziorik gabe gurean dauden adin txikiko atzerritarrei,

Aparatuak agortuta zeudela-eta

TELEALARMA NOIZ INSTALATUKO ZAIN

Herritar bat kexu agertu zen aspalditik itxaroten zegoelako, bere gurasoen etxean Gasteizko udalak telealarma aparatua noiz instalatuko. Gurasoak adinekoak zirelako eta bakarrik bizi zirelako eskatu zuen aparatua horren instalazioa.

Gasteizko udalarekin harremanetan jarri ginen eta, izan ere, jendea instalazioaren zain zegoela baieztatu ziguten, aparatuek uste baino askoz lehenago agortu baitziren. Telealarma aparatuen eskariak ezusteko gorakada handia izan zuela eta horrexek atzeratu zuela telealarmaren instalazioa.

Gauzak horrela, udalak, presako prozedurari ekinez, telealarma ekipo gehiagoren hornidura lehenbailehen kontratatzeko espedientea hasi zuen, bete gabe zituen eskaerei erantzutearren. Aparatu berriak eta erabilitako aparatuek berreskuratuak nahikoa izan ziren eskaera guztiak betetzeko, baita kexa eragin zuena ere.



(El Correoren argazkia)

baita lurralde historikoetan beraientzat berriaz antolatutako zerbitzuei ere.

Arabian ez dira nabarmenki gehitu 2001. urtean, eta Gipuzkoan haien kopurua apur bat hazi da. Bizkaian, aldiz, aspalditxo egindako kalkulu guztiak gainditu dituzte: harrera-eskaeren kopurua aurreko urtean baino ia sei aldiz handiagoa izan da (349 adingabekori egin zaie harrera 2001. urtean eta ia denak magrebtarrak dira).

Adingabeko horiei, harrera-lekuetan,

beren ezaugarrien araberako laguntza eman behar zaie: babes, heziketa, agirien tramitazioa, ingurunean eskura dituzten baliabideak erakustea, familiarekin harremanetan jartzea eta abar.

Zalantzarik gabe, aurrera segitu behar da adingabeko horienganako arreta hobetzeko jardueren-ildo nagusietan, nahiz eta ohiko zailtasunei ziurtasun eza gehitu: ez dakigu eta ezin dugu iragarri nolako bilakaera izango ote duen arazo honek.

Behar bezala aparkatuta zegoen

IBILGAILU BAT BIDE PUBLIKOTIK KENDU ZUTEN ITXURAZ ABANDONATUTA ZEGOELAKO

Herritar batek esku hartzeko eskatu zigun, Bilboko udaltzainek autoa eraman ziotelako, behar bezala aparkatuta egon arren, bertan behera utzita zegoelakoan. Ikerketa hasi genuen eta behinola Ararteko erakundeak honen antzeko beste gertaera batengatik esku hartu zuela ikusi genuen.

Orduko hartan arazoari buruzko gomendio orokorra egin zen eta 1998ko txostenean jaso zen. Bada, gomendio hori hizpide dugun kasuari aplikatuta, Arartekoak ondokoa iritzi dio: auto

bat luzaroan leku berean aparkatuta egotea, berez, ez dela arrazoi nahikoa auto hori bertan behera utzita dagoela uste izateko. Gainera, erreklamazioak bazituen zirkulatzeko baimen administratibo guztiak, nahitaezko aseguruia indarrean zeukan eta ibilgailuen ikuskapen teknikoak gaindituta zeukan.

Bilboko Udalak, aurrekoaren ondorioz, kendutako ibilgailua jabeari itzultzeko gomendioa onartu zuen, jabeak baimen guztiak zituen eta.



(Diario Vascoren argazkia)

EUROPAKO BATASUNEN BESTE ESTATU BATEAN JASOTAKO OSASUN-LAGUNTZAREN GATIK ORDAINDUTAKO DIRU KOPURUAK ITZULI

Pertsona batek osasun-laguntza jaso zuen Frantzian, baimena eskatu ondoren, eta gero zerbitzuarengatik ordaindutako diru kopurua itzultzeko eskatu zuen.

Deigarria da osasun-sistema nazionalaren erabiltzaile batek tratamendu batengatik gastu osagarriak ordaindu behar izatea Frantzian, horretarako baimena zuela, jakinik bere osasun-sisteman tratamendu horretatik beragatik ez zuela ezer ordaindu beharko.

Berez badirudi arazo hau Estatuko administrazioari (GSIN) dagokiola, baina baliteke EAEko osasun administrazioarekin zerikusia izatea, kontuan hartzen badugu Europako Komunitateen Justizi Auzitegiak uztailen emandako epai bat. Izan ere, epai haren aurretik erabiltzaileari tratamendua

jasotzen zuen estatuaren mailako gastuak onartzen zitzaizkion, ez estatu eskudunaren mailakoak. Orain, epaiaren ondorioz, tratamendua jasotzen den estatuko zerbitzuaren maila bere herrialdekoa baino txikiagoa bada, estatu eskudunak diferentzia ordaindu behar dio.

Beraz, tratamenduaren aurreko baimenak Osasun Sailak ere ikus-onesten dituenek, Arartekoak espedientea hasi zuen ofizioz Europako Komunitateen Justizi Auzitegiaren epai horrek Europako Batasuneko beste estatu batean osasun-laguntza jasotzeko ematen diren baimenei dagokienez nolako ondorioak izan ditzakeen argitzeko.

UDALAK ZIRKULAZIO ZERGA KOBRAZTEN ZION AUTOMOBILA DESEGINDA EGON ARREN

Herritar batek kexa aurkeztu zuen Eibarko udalaren kontra, ibilgailu bat bidetik kenarazi eta gero zatiarazi zuelako, berari zer egingo zuten jakinarazi gabe. Udalak, gainera, Zirkulazio Zerga (TMIZ) kobratzen jarraitzen zuen, ibilgailuari ez ziolako behin betiko baja eman Gipuzkoako Trafiko Burutzan.

Udalari informazioa eskatu eta Udaltzaingoa adierazi zigun ibilgailua pasabide batean aparkatuta zegoelako kendu zutela eta arau-haustearen berri eman zitzaiola ediktu baten bidez. 1998ko otsailan ibilgailua zatikatzeko bidali zen, ez baitzegoen ibiltzeko moduan. Hala ere, Zirkulazio Zerga kobratzen jarraitu zuten.

Udalaren jarduera ezbaian jarri genuen eta, ondorioz, Gobernu Batzordeak erreklamatazileari ibilgailu horren TMIZren zioz 1998ko otsailetik aurrera ordaindutako dirua itzultzea erabaki zuen.



(Diario Vascoren argazkia)

MINUSBALIATUEN IBILGAILUETAN JARTZEN DIREN TXARTELEK UDALERRI GUZTIETARAKO BALIO DUTE

Donostiako udalak beste udalerrri bateko pertsona bati isuna jarri zion ibilgailua minusbaliatuentzako lekuan aparkatzeagatik, bera minusbaliatua dela egiaztatzen duen txartela ibilgailuan jarrita bazuen ere, ondo ikusten zen lekuan. Izan ere, Donostian ibilgailuak aparkatzea arautzen duen udal

ordenantzak dioenez, minusbaliatuentzako lekuetan aparkatu ahal izateko Donostiako Udalak emandako txartela eduki behar da, eta udalak, jakina, Donostiako minusbaliatuei baino ez die ematen txartel hori.

Jokabide hori ez dator bat Eusko Jaurlaritzaren dekretu batean ezarritakoarekin. Dekretu horren arabera, udalek emandako minusbalio-txartelek udalerrri guztietan balio dute, eta udal guztiek eskaintako onurak lor daitezke haien bitartez. Hala, bada, Donostiako udalari isuna deuseztatzeko, ordenantza aldatzeko eta, bitartean, azaldu duguna bezalako isunak jartzeari uzteko eskatu genion.

Udalak ez zuen gomendioa onartu. Udal bulegoetan horrelako salaketarik ez zela ageri esan zigun, eta, nolana ere, Irisgarritasunari buruzko Legeak ez diola galarazten dirua ordainaraztea minusbaliatuentzako plazak erabiltzeagatik.



(Diario Vascoren argazkia)

BAZTERTURIK BIZI ZIREN PERTSONA BATZUEN TXABOLAK ERAISTEAK ARAZO SOZIALA EKARRI ZUEN

GKE batek adierazi zuen arazo bat zegoela ijito familia birekin, bizi ziren txabolak eraistekoan zirela eta. Familiok hamar urtean bizi izan ziren han eta erroldatuta zeuden. Txabolak lursail pribatu batean zeuden eta jabeak okupatzaileak bertatik berehala irteteko eskatu zuten; ijitoek ez zuten beste bizilekurik.

Hasieran arazoa kontu pribatua izan bazen ere, bistakoa zen alderdi soziala ere bazuela, arazoak bazterturik bizi diren pertsona batzuk ukitzen baitzituen. Arartekoak udalera jo zuen eta udaleko gizarte zerbitzuek kasuaz egindako balorazioaren berri emateko eskatu zion.

Ordurako familiei udalak lagundutako etxebizitzak emateko gestioak egiten ari zen udala. Gainera, gizarte esku-hartzeko plan batean sartu zituzten, gizarteratzen laguntzeko. Arazoa ondo konpondu zenez, espedientea itxi zen.



(Diario Vascoren argazkia)

TELEFONO MUGIKORREN BASEAK INSTALATZEKO BAIMENEI BURUZKO ARAUDIA BEHAR DA

Telefono mugikorren base-estazioen balizko arriskua dela-eta, keza asko jaso dugu gure Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritatik. Horrelako telekomunikazio sareak eta azpiegiturak izugarri hazi dira, herrietan telefonia mugikorraren antenak erruz instalatu dira eta gizartea ikaratuta dago, horrek jendearen osasunari nolako ondorioak ekarriko ote dizkion. Arartekoak ofizios espedientea hastea erabaki du, instalaziook ekar ditzaketen ondoreak zehazteko.

Ararteko erakundearen iritziz, arau markoa egin beharra dago. Bertan, udalek eta Estatuko administrazioak gai honetan duten eskumenari kalterik egin gabe, EAE osorako gidalerroak ezar litezke, horrelako azpiegiturak zentzuz erabil daitezzen, ingurumenean ahalik eragin txikiena izateko moduan, eta administrazioak esku hartzeko sistema ere ezar liteke. Gainera, arau horretan gutxieneko mugak eta aurre-arretazko neurriak ezarri beharko liriateke, osasunerako balizko arriskuak saihesteko proposamen zehatzekin batera.



(Diario Vascoren argazkia)

VIH GAITZAREN FASE LARRIAN ZEGOEN GAIKO BATEK EGOITZA BEHAR ZUEN ABUZTURAKO

GKE bateko emakume boluntario batek VIH gaitzaren fase larrian zegoen gaixo baten kasua azaldu zigun. Apopilo-etxean bizi zen, baina abuztuko oporraldian apopilo-etxea itxita egongo zenez, bere lurraldeko Aldundiari egoitza espezializaturen batean sartzeko eskatu zion. Egoitzako arduradunek erantzun zuten iraila arte ezin zutela gaixo hori hartu, eta Aldundiak ez zuen beste konponbiderik proposatu.

Aldundiak badu programa bat talde behartsuei laguntzeko, VIH birusak jotako gaixoei, besteak beste. Programa horren baruan egoitzetako laguntza ere sartzen da. Ararteko erakundeak, azaldu dugun arazoa programa horren bidez konpondu zitekeelakoan, erantzuna eskatu zion Foru Aldundiari.

Azkenean arazoa egokiro konpondu zen, interesatuari abuztuaren lelik aurrera egoitzako plaza bat betetzeko aukera eskaini baitzitzaion.

Gomendio orokorra

MIAKETA PERTSONALAK POLIZIA-EGOITZETAN

Polizien jardunean, atxiloketa da ukituriko pertsonen oinarritzko eskubideetan eraginik handienetakoa duen jardueretariko bat. Badaezpadako neurri hori nola burutzen den aztertzea erakunde honen eginkizunetakoa izan da beti.

Gorputzaren miaketa hizpide hartuta, Arartekoa beti aritu izan da atxilotuen oinarritzko eskubideak eta poliziek euren eginkizunak behar bezala bete ahal izatea bateratzeko irizpideak aurkitu nahiz, eta horretarako Ertzaintzak eta udaltzaingoek atxilotuen eskubideak bermatzeko aintzat hartu beharreko gomendio eta jardun-jarraibide batzuk eman ditu.

Horregatik pentsatzen dugu gorputza miatzeko atxilotua biluzaraztea ezin dela izan ohiko jarduera kasu guztietan; aitzitik,

uste dugu atxilotetan proportzionaltasunaren printzipioa izan behar dela oinarria. Printzipio horren arabera, norbait atxilotzen denean arretaz aztertu behar dira inguruabarrak, eta ez da nahikoa delitua nolakoa den soilik kontuan hartzea. Gorputza miatzeko atxilotua biluztea ezinbestekoa denean, polizia-etxean biluztuko da, atxilotuaren duintasuna ahalik eta gehien errespetatzen dela; miaketa sexu bereko polizia batek egingo du eta atxilotua ez dute inolaz ere behartuko tratatu iraingarritzat jo daitezkeen mugimenduak egitera. Gorputza begiratu hutsez baino sakonago miatu behar bada, epailearen baimena eskatu beharko da. Gainera, kasuaren gorabehera zehatzak idatziz agerrarazi behar dira.



(El Correoren argazkia)

SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOEN JARRAIPENA ARABAN

Duela sei urtetik Ararteko erakundeak jarraipena egiten dio Arabara mahatsa eta patata biltzera etortzen diren sasoiakako langileen eta horien familien egoerari. Bitarte horretan erakundeen esku-hartzeak ugaritu egin dira: eskolatzeko programak, gizarte-hezkuntzakoak, informazio bulegoak, aterpetxeak eta abar.

Azken hiru kanpainenetan, Ararteko erakundeak bi aztergai nagusi izan ditu: sasoiakako langileen bizilekuak arautu beharra eta haien umeen eskolatzeta. Bada, egindako jarraipenaren ostean, erakunde honek uste du beharrezkoa dela sasoiakako langileei ostatu emateko baldintzak arautzea, eta lehenbailehen konpondu behar dela arazo hori, gatazka handiagorik ekar ez dezan. Ildo horretatik, ia zko txostenean egindako gomendioa berretsi nahi dugu.

Eskolatzeko baldintzei dagokienez, hizpide dugun biztanle-taldea ahulenerikoa da, bistan denez; badu hezkuntzarako eskubidea, eta urtero-urtero etortzen da Arabara. Gure iritziz, hemengo hezkuntza-sistemak sasoiakako langileei behar bezala bermatu behar die eskubide hori erabili ahal izatea gurean dauden bitartean.

MAHASTI BERRIAK LANDATZEKO ESKUBIDEA

Emakumezko nekazari gazte batek Arabako Aldundiaren Nekazaritza Sailaren jarrerarekin ados ez zegoela adierazi zigun. Emakume horrek hiru hektareako mahasti berria landatzeko baimena eskatu zuen, eta Aldundiak esan zion bi hektarea baino ezin zuela landatu. Alabaina, interesatuak dio berak baduela eskubidea hiru hektarea landatzeko; emakumezko nekazari gaztea dela, eta hain zuzen ere horixe dela gehien baloratu beharreko baldintzetako bat mahasti berriak landatzeko eskubideak banatzeko orduan, Arabako Errioxan mahasti berriak landatzeko eskubideak emateko prozesua

arautzen duen foru dekretuaren arabera.

Txostena eskatu genion Aldundiari, interesatuak aspaldi aurkeztua baitzuen errekurtsioa; eta Nekazaritza Sailak errekurtsioari oniritzea erabakia zuela jakinarazi zigun; horrenbestez, mahastia hiru hektareako lurretan landatzeko eskubidea onartuko zuela, izan ere, interesatua emakumezko nekazari gaztea baitzen.



(El Correoren argazkia)

EZ ZIOTEN OHEAN LO EGITEN UZTEN GAUEKO ATERPETXE BATEAN

Bizilekurik ez duten pertsonen gauean ostatu ematen dien Gasteizko udalaren zentro baten erabiltzaile batek adierazi zigun aulki batean egiten zuela lo, ohean egiten uzten ez ziotelako, batzuk libre egon arren. Gainera zirkulazio-arazoak zituen eta medikuak etzanda lo egiteko gomendatua zion.

Kasua udalari jakinarazita, honek txosten bat bidali zigun, etxearen oinarriko funtzionamendu arauak jasotzen zituena eta zentroa hartzen zuen jendea kontuan hartuta eskakizun gutxi-gutxiko gunetzat definitzen zuena. Txostena irakurrita ohartu ginen zentroaren barne funtzionamenduko arauak ez zutela zerikusirik erreklamatzailerari ezarritako baldintzekin; gainera ez ziren azaltzen haiek ez betetzeak ekar zitzakeen ondorioak, ezta

balorazio irizpideak ere, besteak beste. Zentroak, gainera, ez zituen aintzat hartu medikuaren txostenak, ez atsedean egokia hartu beharra, eta ez zuen azaldu zergatik jokatu zuen horrela.

Beraz, erakunde honek ebatzi zuen ez zela bidezkoa erreklamatzailerari ohean lo egitea galaraztea eta orain ezetzean jarraitzea, eta adierazi zuen lehentasuna eman behar zaiola osasun-arazoak zaintzeari. Gasteizko udalari gomendioa bidali zitzaion esanez egoera aztertu behar zuela erreklamatzaileraren osasun-egoera kontuan hartuz, eta ahaleginak egin behar zituela horrelakorik gehiago gerta ez dadin.


HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI ERANTZUNA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Apustu argi eta orokorra egin da ezgaitasunen bat dela eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratzearen eta hezkuntza erantzuna normalizatzearen alde. Hala ere, nahiz eta aurrerapauso batzuk eman, Ararteko erakundeak egindako txostenean ohartarazi da gizarte behartsuen arloak ez duela jasotzen behar bezalako arreta, batez ere alde eta ikastetxe jakin batzuetan, eta nabarmendu da sare publiko eta pribatuaren artean alde handia dagoela hezkuntza-premia berezien arretari dagokionez. Bertan adierazitakoaren arabera, erabat adostuta dago ikastetxeetan eta geletan ez direla gainditu behar hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eta gainerakoen proportzio jakin batzuk, eskolako integrazioa posible eta guztientzat onuragarria izango bada. Gure erkidegoko arautegiak berak arrisku horretaz ohartarazten du: "Hezkuntza Administrazioak arreta berezia jarriko du inguru behartsuetan dauden ikastetxeak bazterturik gera ez daitezten, hori integrazio eta normalizazio printzipioaren kontrakoa izango litzateke eta". Hezkuntza administrazioaren eginbeharrak dira, beraz, horretarako bitartekoak jartzea eta ikastetxeak zaintzea halakorik gerta ez dadin. Txostenean neurri batzuk proposatu dira helburu horrekin hainbat alderditan: matrikulazio irizpideak, ondorioen jarraipena, ikastetxe aldaketak edo ikasle zehatz batzuk beste zerbitzuetara erdi estalita "egozte".

Errealitateak, gainera, erakutsi du integrazioa eta normalizazioa, hezkuntza-premia berezien arloko jarduna bideratzen duten printzipioak hain zuen, ez direla beti benetan lortzen. Eta badago bereziki kezagarria den beste gai bat ere: hezkuntza-premia berezien prebentzioan eta arreta goiztiarrean hutsuneak daude, eta horrek argi erakusten du Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako lehen zikloa araupetu eta ezarri behar dela.

Orobat, Bigarren Hezkuntzak berriazko arazoak ditu, ikastetxe askotan ikasleen askotarikotasunari ematen zaion erantzuna inondik inora ere ez baita behar bezalako.

Txostenean emandako 21 gomendioen helburu nagusiak arazoari aurrea hartzea eta antzemandako akatsak zuzentzea dira. Gomendio hauek azpimarratuko ditugu: baliabideak banatzean behar handiko ikasle asko dauden ikastetxeen aldeko bereizkeria positiboa erabiltzeko eskatzen duena; "eskola ghettorik" sortu ez dadin, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak orekaturik banatzeko neurriak hartzeko eskatzen duena; beharrezko koordinazioa bermatzeko, Bigarren Hezkuntzako ordutegia berrikustearren alde egiten duena.



(Bilboko Arte Eder Museorearen argazkia)



(Diario Vascoren argazkia)

ARGITALPENAK

■ Eusko Legebiltzarrentzako Txostena, Arartekoak aurreko urtean egindakoaren berri ematen duena.

■ EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna. 2001. Txosten berezia.

■ Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos. Arartekoak eta beste batzuek Euskal Herriko Unibertsitatearen XX. Udako Ikastaroetarako izenburu horrekin antolatutako jardunaldiko txosten eta hitzaldien bilduma da.

■ Manuel de Lardizábal y Uriberen “Discurso sobre las penas contrahído á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma” obraren berrargitalpena. Lehenengo edizioa 1782an argitaratu zen.

■ Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, abenduaren 10ean, Arartekoak kartel bat atera ohi du, eta 2001ekoaren ardatz nagusia haurren eskubideak izan dira. Halaber, Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioaren edukia laburbiltzen duen esku orria argitaratu da, bai eta haurren oinarritzko 10 eskubide azpimarratzen dituen egutegia ere. Material hauek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegietan banatu dira.



BESTE HERRI DEFENDATZAILEEKIN EGINDAKO JARDUNALDI ETA EKITALDIAK

■ Otsailean, autonomietako herri defendatzaileak Kanarietan bildu ziren, baita Euskadiko jarduneko Arartekoa ere, eta inmigrazioaz jardun zuten; hain zuten ere, arlo horretan esku duten herri administrazioek atzeritarren beharriaz erantzuna nola eman aztertu zuten.

■ Otsailean bertan, Arartekoa euskal delegazioan joan zen Tindunfeko kanpalekuetara, Saharako Errepublikaren 25. urteurrena ospatzera.

■ Martxoan, M^a Jesús Aranda Nafarroako lehen Herri Defendatzailea karguaz jabetu zeneko ekitaldian izan zen Mertxe Agúndez.

■ Azaroan, Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVI. Jardunaldiak izan ziren Madrilan, eta Arartekoak “Adin txikiko seme-alabak dituzten emakumezko presoen egoera EAEn” izeneko txostena aurkeztu zuen. 1996rako, Ararteko erakundeak Euskadiko Autonomia Erkidegoko espetxeetako egoera txosten berezia argitaratu zuen, eta bertan emakumezkoen departamentuetako akatsak eta gizonezko presoen aldean jasaten duten bereizkeria azpimarratu zituen. Harrezkero Arartekoak hainbat txosten aurkeztu dizkio Eusko Legebiltzarrari, eta behin eta berriro aipatu du zein eskasa den emakumezko presoen egoera. Zehatzago, 2000. urteko txosten arruntean nabarmendu zen amen unitatea artean abiarazi gabe zegoela, nahiz eta hainbeste aldiz



eskatu eta espetxeetako administrazioak maiz adierazi Euskadiko Autonomia Erkidegorako proiektatuta dagoen espetxean unitate hori egiteko asmoa dagoela.

■ Jarduneko Ararteko Mertxe Agúndez Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren VI. Batzarrean izan zen, Puerto Ricon. Han “Ararteko erakundeak gizarte eskubideen bilakaeran” izeneko txostena aurkeztu zuen: eskubideak babesteko erakundeek gizarte, ekonomia eta kultura eskubideen babesean duten eginkizun garrantzitsua nabarmendu zuen.

■ Belgikako Valoniako “Médiateur” delakoak mintegia antolatu zuen Europako herri defendatzaile nazional eta erregionalentzat, “Herri defendatzaileak bereizkeriaren kontra” gaia ardatz hartuta. Mintegian Oinarriko Eskubideen Karta aztertu zen eta bereizkeriarik ezaren printzipioari buruz eta horretaz Batasunak emandako zuzentzaruei buruz hitz egin zen.



Herri Defendatzaileak

BOLIVARREN HEGOALDEKO BIZITZAREN ALDE, KOLONBIAN

■ Erakunde honek jakin du giza eskubideak larriki eta etengabe urratu direla Kolonbian, Bolivarren hegoaldeko nekazarien kontra (hilketak, behartutako desagertzeak, herriskak suntsitzea, e.a.). Egoera horren aurrean, Bolivarren hegoaldean Bizitzaren alde egiteko Nazioarteko Karabana antolatu eta egitearen alde agertu zen Ararteko erakundeak. Karabana hori 2001eko abuztuan burutu zen, nekazariei laguntza eta elkartasuna eskaintzeko. Era berean, erakunde honek onetsi egin zuen Bolivarren hegoaldean Iritzia emateko Nazioarteko Epaimahaia sortzea, “Zigorgabetasunaren kontra, Kolonbiak Justizia aldarrikatzen du” nazioarteko kanpainaren barruan.

IKERKETA BEKAK ETA ESKOLA MATERIALEN PRESTAKETA

■ Hausnarketa eta giza eskubideen kulturaren zabalpena sustatzeko asmoarekin, Ararteko erakundeak ikerketa beka bat iragartzen du urtero. Azken deialdian Gorka Morenori eman zaio beka, gizarte bazterketa eta oinarrizko errentaren aplikazioaren arazoari buruzko azterlana egin dezan. Gainera, 2001. urtean beste beka baten deialdia egin zen ikerketa aplikaturako, eta 28 proiektu aurkeztu ziren. Hautapen froga amaituta, beka IRSE/EBIri eman zitzaion, "Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi diren magrebtarrek euren kulturaren bizitzeko, euren erlijioa izateko eta euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea" aztertuko duena.

■ Azaroaren 20an NBEK Hautzaroren Eskubideen Nazioarteko Eguna izendatua, giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatzeko hiru azterlanak aurkeztu ziren. Ararteko erakundeak belaualdi berriak balio demokratikoetan hezten laguntzeko duen arduraren adierazgarri dira beka horiek. Eskola komunitateari heziketa-lanak garatzeko erabil ditzakeen eskola materialak eskaintzea dute helburu.

■ 2001. urtean Mugarik Gabe elkarteari beka eman zitzaion emakumezkoen eskubideei buruzko azterlana egiteko, eta oraindik horretan dihardute.

■ Gure eskubideak argitaratu da, Lehen Hezkuntzako ikastetxetarako material didaktikoa duen karpeta. Materialek hautzaroren eskubide espezifikoak dituzte aztergai nagusi.

■ Eskubideak jolasean: 27 giza eskubiderekiko zerikusia duten materialen kutxa, jolasa eta hausnarketa uztartzen dituena, batez ere DBHko ikastetxetarako egina.

■ DBH eta Batxilergoko jakintza-arlo eta zehar-lerro desberdinetarako ariketa praktikoak karpeta batean bilduta, guztira 181 jarduera eskaintzen dituena.



(El Correoren argazkia)

